PARLAMENTO CÍVICO

# Hiritar izaeraren hezkuntza

CONCEPCIÓN NAVAL | ELENA ARBUÉS | CHARO SÁDABA

PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA

Universidad de Navarra



# Hiritar izaeraren hezkuntza

PARLAMENTO CÍVICO

# Hiritar izaeraren hezkuntza

CONCEPCIÓN NAVAL | ELENA ARBUÉS | CHARO SÁDABA

PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA

Universidad de Navarra

DISEINUA
KEN

IRUDIAK
César Cabañas
deMiranda Studio

INPRIMATEGIA
Esprinta

ISBN
978-84-8081-529-1

L.G.
NA 2267-2016

# AURKIBIDEA

1. Aurkezpena 9

2. Liburu hau nola erabili 11

3. Gizarte bertuteetan heztea 15

4. Gizarte bertute batzuei buruz 19

Komunikazioa 23
Begikotasuna / Adeitasuna 33
Eskuzabaltasuna / Liberalitatea 39
Eskertasuna 45
Justizia 51
Parte-hartzea 59
Errespetua 65
Erantzukizuna 73
Elkartasuna 79
Egiatasuna 85

5. Ondorio modura 91

6. Bibliografia 93

7. Gehiago jakiteko 95



# 1. AURKEZPENA

Hiritar on bat izateak zer esan nahi duen jakin dezakegu, baina izateko gura eduki behar da. Gure proposamena hiritar on baten edozein ekintzetan komunak diren gizarte jarrerengatik apustua egitea da: **altruismo baikorra**, **erantzukizuna** –sozial zein politikoa–, **errespetua**, **leialtasuna** eta **justizia**. Hiritar on batek gizarte baten parte dela badaki eta sentitzen du. Ez da inoiz bakarrik jarduten eta bere onura hutsa bilatzen, bizitza kolektiboaren hobekuntzan, gustu handiz, parte hartu nahi baitu. Politika eta gizarte gaiekin lotura duen edozeren funtzionamendu zuzenari buruz arduratzen da. Baina kezka hori benetakoa izan dadin, **hiritar on batek tolerantea**, **adikorra izan beharko du**, bereak ez diren beste iritziak kontrastatzera irekia egon beharko du. Alegia, begirunetsua izan beharko da.

Orain bai, "errespetatzea" ez da "baimentzea", "onartzea" edota besteen ekimenei "baimena ematea" terminoen sinonimo bat, guztiontzako onuragarria dena lortzeko gizartearen partaide diren besteek sustatzen dutenarekin identifikatzea baizik; beti zentzu kritiko batekin, printzipio propioei uko egin gabe eta justiziara bideratuta legitimoki eratutako autoritatea onartuz.

Hiritar on baten ezaugarri guzti hauek –altruismoa, erantzukizuna, errespetua, leialtasuna eta zentzu kritikoa, justizia– lehenik familian garatzen dira, baina baita eskolan ere, eta elkarbizitza estilo egoki bat eratzeko erreferenterik onenak dira.



## 2. LIBURU HAU NOLA ERABILI

Orrialde hauek etorkizuneko hiritarrak hezteko erantzukizuna eta zeregina dutenei lagungarri izateko helburua dute. Lehen zein bigarren hezkuntzako ikasgeletan hiritar hezkuntzarekin lotutako eduki edota ikasgaiak irakasten dituzten irakasleei zuzenduta dago.

Liburu honek jasotzen dituen testuak **Nafarroako Unibertsitateko Hiritar Parlamentuko** ikerketa taldearen fruitu dira **Nafarroako Parlamentuarekin** izenpetutako hitzarmenari esker.

**Hiritartasun aktiboago bat sustatzea** da talde honen helburuetako bat, pentsamendu askoren ondoren, alor honetan gazteenen formakuntza nola hobetu proposatzen duena. Ardura honen ondorio bezala, 2010etik aurrera hainbat jarduera eta ekimen eraman dira aurrera eta 2013an hiritar identitate baten eraketa prozesuko gizarte jarrerarik garrantzitsuenak islatzen dituen ikus-entzunezko edukiak garatzeko proiektu batek eitea hartu zuen.

Bideo hauek egiterako orduan, ikus-entzunezko hizkuntzaren elementuak kontutan hartu dira beti: laburtasuna, alderdi bisualen garrantzia, ikus-entzunezko narratiba ulertzearen beharra, etab. Dena den, bideoak eratzeko oinarritzat erabilitako gidoiak sortzeko testuak materiala testuinguruan jarri, gehiago jakin, edota gairen batean gehiago sakondu nahi dutenentzat erabilgarriak izan daitezkeela uste dugu. Eta honela sortu zen liburu honen ideia, ikusentzunezko erreferentziak hauen sorburu diren hausnarketa teorikoekin uztartzen dituena.

Gure helburua hiritartasuna eta hiritar hezkuntzarekin erlazionatutako unitate didaktikoak garatzen ari direnei laguntzea da, ikasgelan ikasleekin erabil daitezkeen material desberdin eta dibertigarriak eskura izatea erabilgarria izan daitekeela ulertuz, baina ikasgaiaren edukietan irakaslearen aldez aurreko formakuntza bat beharrezkoa dela ere, batzuetan oinarri sendoago eta sostengu bibliografiko gehiagorekin.

Liburuak egitura xinple bat aurkezten du: **Gizarte bertuteetan heztea** kapituluak gizarte bertute edota jarreren eta gizabidearen arteko erlazioa azaltzen du, eta gazteei hiritar hobeak izaten lagunduko dieten ohiturak bereganatzen laguntzearen garrantzia ere. Ondoren, landutako hamar **gizarte jarrerak** biltzen dira: **komunikazioa, begikotasuna, eskuzabaltasuna, eskertasuna, justizia, parte-hartzea, errespetua, erantzukizuna, elkartasuna** eta **egiatasuna**. Testu bakoitza bideoaren eskema jarraitzen duten hiru ataletan banatzen da: zertan datza gizarte jarrera hori? nola adierazten da? eta, azkenik, nola hezten da ohitura horren eskuratzean? Testu bakoitzaren amaieran, interesdunak sakontzeko aukera eduki dezan bibliografia helarazten da. Bideora lotura eta QR edo bidi kode baten bitartez sarbidea ere helarazten dira.

Bideoak ikasgelan erabiltzeko eta ideia garrantzitsuenak laburki azaltzeko eduki erakargarri eta xumea izan daitezkeela uste dugu. Hortik aurrera, irakaslearen papera ezinbestekoa da ez soilik ezagutza transmititzeko, ikasleengan benetako interes bat sorrarazteko eta pertsonalki gaian nahas daitezen lortzeko ere baizik. Liburu honen izaera aplikatua dela medio, egileak ekimen hau aberasten lagun dezaketen ideia, iradokizun

eta esperientzia praktikoak jasotzea eskertuko lukete. Korreo elektronikoz bidal daitezke honako helbidera: parlamentocivico@unav.es.

## Zertan datza hiritar konpetentziaren ikaskuntza?




https://goo.gl/HvH42A




https://goo.gl/3B4kSu

## 3. GIZARTE BERTUTEETAN HEZTEA

Bertutea egoki jokatzera bultzatzen gaituen ohitura da (Quintana, 1998). Etimologikoki indarra esan nahi du, bere natura kontrolatu eta antolatzeko pertsona bakoitzak egiten duen esfortzua baita. **Bertute orok pertsonak hobe izatera bultzatzen ditu.** Gizartea, osatzen duten pertsonen arabera existitzen denez, zenbat eta hobeak izan pertsonak hobea izango da gizartea ere. Gizarte bertuteei buruz hitz egiten dugunean, besteentzako, gizartearentzako gainera zerbitzuaren errazte paper bat jokatzen dutenei buruz ari gara (Isaacs, 2000). Esan liteke ongizate komuna bermatzen dutela.

Enpresa mundutik giza formakuntza oso bat eta pertsonalitate heldu bat edukitzearen beharra mahai-gaineratzen dute, erantzukizuna onartuz erabakiak hartzeko prest dagoena. Horretarako gauzak zergatik eta zertarako egiten diren jakiten laguntzen duen formakuntza etiko bat beharrezkoa da (Altarejos, 1991). Bertute terminoa bibliografian konpetentziarenarekin lotuta agertzen da. Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza bat formakuntza integral baten ikuspuntuarekin bat datozen printzipio pedagogikoak zabaltzeko eraginkorra gerta daitekeen bitarteko bat izan daitekeela pentsatzen duten pertsonak ere badaude, gaitasun guztien hezkuntza kontutan hartuta, baita oinarrizko balore eta printzipio etikoekin ere erlazionatutakoak (Zabala eta Arnau, 2007).

Hezkuntzaren gure planteamendu humanista-hiritarretik, ikasleengan jarrera ohitura egonkorrak sorrarazten dituen adimen, borondate eta afektibitatearen garapena lortu nahi dugu. Gizarte bertuteetan

hezkuntza hori lortzeko bitarteko egokia izan daitekeela kontsideratzen dugu, "gure jokabidean modu batera edo bestera, hezkuntza adimenean eta borondatean errotutako ziurtasunez osatuta" dagoelako (GONZÁLEZ-SIMANCAS, 1991, 51).

Haur eta gazteengan bertuteen eskurapenak kanpotik suspertu eta finkatuta izan beharko du. Familien ondoren, hezkuntza zentroak dira eragin handiena edukiko dutenak. Brezinkak adierazi bezala, "**haurrek batez ere gertuen sentitzen dituzten pertsonen adibideetatik ikasten dute.** Hori dela eta, beraien bizitza esparruan ezagutza eta gaitasun zein jarrera eta bertute gaietan eskuratu beharreko edozeri dagokionez adibide on kopuru nahikoa izan beharko dute" (1990, 13). Hezkuntza zentroetan bertuteetan hezi nahi duten ikasleen adibideak ezinbesteko papera jokatzen du (MIR, 2001). Hezkuntza egoki batek ikasleak hiritar on bat izateko gura izan dezan eta bere betebeharrez jabe izan dadin bultzatzen duela jakinda.

**Hezkuntzak ikasleriarengan ikaskuntza aipagarri bat sustatu behar duela** ulertzen dugu (GIMENO SACRISTÁN, 1985; PÉREZ GÓMEZ, MARTÍNEZ, TEY, ESCOMBRA ETA GONZÁLEZ, 2007), "diziplinako ezagutza eta esperientzia didaktikoak arazo garrantzitsuak aztertu eta ulertzeko, baita esku-hartze era eta estrategiak errazteko bitartekari intelektual bezala erabiliaz" (GONZÁLEZ, 2007, 14). Hau da, ez da nahikoa ikasleak ezagutza alor batean aurkezten zaizkion arazo akademikoak konpontzeko besterik erabil ditzakeen eskema teorikoak ikastea. Izan ere, ezagutza esanguratsuak ikasleek beraien eguneroko bizitzan egoe-

rak ulertu eta interpretatzeko eta erabakiak hartzeko ezagutza eskemak bitartekari intelektual bezala izan ditzan sustatzen du (15-16). Ezagutza aipagarriak ikaslerian jokabideak eta esperientzia errealen eskuratzea sustatzen ditu.

Hau da gure iritziz, gizarte bertutetan hezteko modua. Lehenik eta behin, beharrezkoa da ikasleak bertute bakoitza zer den eta zer dakarren berarekin ezagutu dezan. Ezagutzan arrazionalean oinarrituta bultzatu ahal izango dira ez bakarrik beharrezko jarrera eta iritziak zuzendutako eta noizbehinkako jokabideak eragiteko, baizik eta autonomoak eta denboran egonkorrak ere.

Hausnarketa eta hiritartasunaren ikaskuntza bere jardutea bultzatzen duen testuinguru batean baino posible ez dela pentsatzen dugu. Izan ere, "egile desberdinen gomendioa ahobatezkoa da hiritar hezkuntzarako ikaskuntza parte-hartzaile eta elkarlaneko ikuspuntu metodologiko baten beharrari dagokionez, oroimenezko ezagutzaren eskurapenean baino ikasleriaren jardueran zentratuagoa dagoena, loturarik gabeko edota puntualak diren praktiketan baino talde prozesu parte-hartzaile erreal eta esanguratsuetan ikasleria tartean nahasten dituena" (Cabrera, 2007, 382).

Egia da bertuteak praktika beharra duela, baina praktikak, irrazionalki egina ez egoteko, ezagutza behar du. Hasiera batean ezagutza ez da nahikoa izango; praktika egon den arte ez da nahikoa izango (Altarejos, 1991).

Sozializazio prozesuan eta parte-hartze kontzientziaren garapenean eskola garaiak duen garrantzia

nabarmentzen dugu, eskola testuinguruan ezarritako jarduera mota eta gizarte erlazioek ikasleriaren gizarte jarrera eratzen laguntzen dutelarik. Eskola testuinguruan, ikaskuntza aktibo eta parte-hartzaileak besteekin elkarri eragitea darama; zalantzarik gabe sozializazio aukera paregabe bat dena. Honek curriculum diseinuan gizarte eduki eta interesa duten edukiak txertatzea darama berarekin. Lerro honetan doa Hiritar Parlamentua Proiektuan eratutako materiala, benetako gizarte parte-hartzea sustatzea begi-bistan edukita.

## 4. GIZARTE BERTUTE BATZUEI BURUZ

Hezkuntza Kalitatearen Hobekuntzarako Lege Organikoak (2013), hezkuntza sistema espainola sustengatzen duen printzipioetako bat askatasun pertsonala, erantzukizuna, hiritartasun demokratikoa, elkartasuna, tolerantzia, berdintasuna eta errespetua, zein edonolako diskriminazio egoera gainditzera lagun dezaketen baloreen transmisioa eta indarrean jartzea dela gogorazten du (*Hitzaurrea*, XIV).

Zehazki, hasteko, legediak nabarmentzen dituen bertute batzuetan lan egitea izan genuen xede, gerora beste batzuk ere landuz. Orain arte, ondorengo hamarrak landu ditugu: komunikazioa, begikotasuna/adeitasuna, eskuzabaltasuna, eskertasuna, justizia, parte-hartzea, errespetua, erantzukizuna, elkartasuna eta egiatasuna.

Horretarako, irakasleria guztiarentzat eskuragarri egongo ziren bideo batzuk egitea pentsatu genuen. Urte hauetan jasotako bisita kopurua materialak sortu duen interesaren adierazgarri da.

Ikasleen artean gizarte bertute hauek eta beste batzuk lantzeak beraiengan gizarte parte-hartzea sustatzen lagunduko duela deritzogu. Helburu nagusia, gizarte bertuteak zeintzuk diren ulertuz, ikasleek ondorengo hiru galderei erantzuna aurki diezaieten lortzea da:

- Zergatik parte hartu?
- Zertarako parte hartu?
- Zertan parte hartu?

Bideoan agertzen den gizarte bertute bakoitza landu ondoren eskuratutako ezagutzak erantzun egokiak aurkitzea ahalbidetuko die.

Adibide gisa, 1 taulan ikasleek aurki ditzaketen erantzun batzuk jasotzen dira.

**Taula 1. Gizarte bertute bakoitza ulertu ondoren egon daitezkeen erantzun posibleak**

| GIZARTE BERTUTEAK | ZERGATIK PARTE HARTU? | ZERTARAKO PARTE HARTU? | ZERTAN PARTE HARTU? |
|---|---|---|---|
| **Komunikazioa** | Besteekin ideiak eta sentimenduak partekatzea ahalbidetzen nauelako | Iritzi desberdinak entzun eta argumentatzen jakiten ikasteko | Publiko eta inguru anitzetara moldatu eta akordioetara iristea ahalbidetzen nauten gauzetan |
| **Begikotasuna Adeitasuna** | Besteekin erlazio egokiak ezartzea ahalbidetzen didalako | Indibidualismo eta amorruari aurre egiteko | Lotsa gainditu eta besteekin era positibo batean erlazionatzera lagunduko nauenean |
| **Eskuzabaltasuna** | Daukadana besteekin partekatzeko aukera eskaintze didalako | Besteei laguntzeko | Jarduera solidario eta gizarte kausetan |

| GIZARTE BERTUTEAK | ZERGATIK PARTE HARTU? | ZERTARAKO PARTE HARTU? | ZERTAN PARTE HARTU? |
|---|---|---|---|
| **Eskertasuna** | Jasotako ondarea hautemateko, ordaindu eta besteei balioztatzen ditudala erakusteko | Eman eta jasotzera irekia egoteko | Altruismoa sustatzea eta giza erlazioak hobetzea baimentzen didan gauzetan |
| **Justizia** | Bakoitzaren eskubideak errespetatzera prestatzen nauelako | Elkarbizitza zuzen marko bat ezartzen laguntzeko | Gizarte orden zuzen bat lortzeko laguntzen ahalbidetuko nauenean |
| **Parte-hartzea** | Eskubide bat delako eta komunitate baten partaide sentitzen naizelako | Gugan eragina duten erabakietan esku hartzeko eta politika publikoetan eragina edukitzeko | Baloreak partekatu, erabakiak hartu, irtenbideak eskaini edota ekimenak proposatzeko aukera eskaintzen didanean |
| **Errespetua** | Aurreiritzirik gabe, gizarte erlazio egokiak eratzeko | Besteak ezagutu, tratatu, hartu eta entzutea lortzeko | Besteen alde ekintza positiboak egiten lagunduko didaten gauzetan |
| **Erantzukizuna** | Aukera desberdinen artean egokiena dena aukeratzen uzten didalako | Nire talde eta gizarte esparruekin partekatutako erantzukizuna onartzeko | Ondareak, esfortzuak eta gizarte bizitzako kargak partekatzea ahalbidetuko didanean |

| GIZARTE BERTUTEAK | ZERGATIK PARTE HARTU? | ZERTARAKO PARTE HARTU? | ZERTAN PARTE HARTU? |
|---|---|---|---|
| **Elkartasuna** | Gizarte gizaki bat naizelako, besteen beharra dudalako eta besteek ni behar nautelako | Gizarte arazoen konponketan eta gizarte kohesioan laguntzeko | Doako modu batean eta era desinteresatu batean besteen ongizatean lankidetzan jarduten lagunduko didanean |
| **Egiatasuna** | Elkarbizitza hobetzeko pentsatzen dudana adieraztea ahalbidetzen nauelako | Nere burua argitasunez adierazi eta iraindu gabe besteekin partekatu ahal izateko | Ni neu eta besteak aberats gaitezen ahalbidetzen duten gauzetan |

Ondorengo kapituluan bertute bakoitzaren azalpen bat ematen da, bideotan eskainitako informazioa aberastu ahal izateko. Irakaslearentzat baliagarria izan daiteke ikasleekin beraien aurkezpena eta elkarrizketa bideratzeko.

# KOMUNIKAZIOA



https://goo.gl/k1RXZm

## ZER DA?

Komunikatzea latineko communicare hitzetik dator, zeinak “zerbait partekatu, komuna egin” esan nahi duen. Funtsean, partekatzen dena informazioa da; baina baita ideiak, jarrerak eta sentimenduak ere. Beraz, esan genezake komunikazioa ideiak, sentimenduak, pentsamenduak, jarrerak eta abar transmititu eta partekatzea ahalbidetzen duen beste pertsona batekin ezartzeko ekintza dela.

Komunikazio ekintza, bi pertsona edo gehiago erlazioan jarri eta, informazioaren igorpenaren oinarri bezala jarduten den kanala erabiliz, antzeko kodea duten mezuen elkartrukearen bitartez, edukia ulertzen saiatzen den prozesua da (Caballero, 1993).

Beraz, prozesua erraztu eta, batzuetan, oztopa dezaketen elementu desberdinak ondorengoak dira:

- Igorlea eta hartzailea. Igorlea komunikazioa hasten duen pertsona da, hartzailea mezua jasotzen duena den bitartean.
- Mezua. Kode, gako, imajina, keinu eta abar erabiliaz komunikatu nahi diren ideia desberdin eta informazioez osatuta dagoena eta zeinaren zentzua hartzaileak interpretatuko duen.
- Kodea. Mezua transmititzeko erabilgarria den hitz, espresio, imajina, gako eta abarren multzoa da. Kodea igorle eta hartzaileak partekatu behar dute.
- Kanala. Mezua transmititzen duen bidea da.
- Atzeraelikadura (*feedback*). Hartzaileak igorleari bere komunikazioari buruz, zein hartzailearen komunikazio horren interpretazioari buruz bueltatzen dion informazioa da.

- Komunikazio prozesu hau beti testuinguru batean emango da, zeinaren baitan igorle eta hartzaileak rolak bereganatzen dituzten, beraien artean ezartzen den komunikazio motaren arabera (pertsonala, laguntasunekoa, laborala, publikoa, eta abar).

Bi pertsonen arteko komunikazio eraginkorra, nolabait, hartzaileak igorleak nahi zuen mezuaren zentzua ulertzen duenean ematen da.

## KOMUNIKAZIOAREN OSAGAI KONDUKTUALAK

Pertsona bakoitzak abileziak, jarrerak, nortasun bereizgarriak, kultura eta abar bezalako faktore desberdinen arabera komunikazio sistema propioa duela esan dezakegu (Ongallo, 2007). Orokorrean hiru osagai bereizten dira: hitzezkoak, hitzezkoei atxikitakoak eta hitzezkoak ez direnak.

- *Hitzezko* osagaien artean, hitza da nagusiena (zeinu linguistikoak). Informazioaren transmisioan eta baita argudiatzean, arrazoiketan edota eztabaidan ere erabiltzen da. Besteak beste, *hitzezko komunikazioan* elementurik garrantzitsuenak honakoak dira: edukia, asmoa, arreta, galderak eta erantzunak.
- Komunikazio jarreran *hitzezkoei atxikitako* osagaiek edukietan baino gauzak esateko moduari erreferentzia egiten diote: ahotsaren bolumena, tonua, diskurtsoaren abiadura, ahots tinbrea, geldiuneak eta isiluneak, eta abar. Beraien era-

bilerak ez du esaten dena eraldatzen baina bere esanahia alda dezake.

- Komunikazio prozesuan *hitzezkoak ez diren* osagai nagusiak (*hitzezkoa ez den komunikazioa*, zeinu ez linguistikoak) honakoak dira: begirada, irribarrea, aurpegiaren espresioa, gorputz orientazioa, postura, solaskidearekiko distantzia, keinuak eta abar. Hitzezko komunikazioari orokorrean garrantzia ematen diogun arren, besteekin gure komunikazioaren totalaren %65 eta %80 artean hitzezkoak ez diren beste kanalen bidez egiten dugu. Askotan hizkuntza ez-hitzezkoak hitzez esaten dena kontra esanetan jartzen du, beste batzuetan indartzen duen bitartean.

Beraz, komunikazio egoki bat ezartzea, zaildu dezaken edozein oztopo ekidinez, kontutan hartu beharreko nortasun eta jarrera faktoreen arabera egon daiteke, besteak beste:

- Era ez argi batean elkarrizketan jardun, hitz-erdika hitz eginez, beste pertsonak esaten ari garena interpreta dezan itxaronda.
- Aldez aurretik egoera aztertu gabe, ezta komunikazioa hasteko modu egokiak kontsideratu gabe ere, hitz egin.
- Besteari modu desegoki batean hitz egin.
- Entzuten ez jakitea.
- Tonu ozenegi batean hitz egitea.
- Jorratu beharreko gaiaren ikuspegitik egokia ez den une edo leku batean hitz egitea.
- Adierazteko denbora eman gabe, beste pertsonak esan nahi diguna suposatzea.

- Komunikazio prozesuan beste pertsona kritikatu edo epaitzea.
- Tratu ironiko, mespretxuzkoa edo oldarkorra.
- Gure sentimendu edo pentsamenduetan argitasun eza, mezu anbiguo bat bidaliz.

## KOMUNIKAZIO EGOKIAREN HELMENA

Gizakia naturaz erlazionala da. Pertsona arteko komunikazioa gizarte komunikazio primarioa da (Aguado, 2014). Era gogobetegarri batean egiteko eta elkarlana lortzeko ezinbestekoa da pertsonen arteko elkarrizketa errespetuz betetako topaketa bat izatea, bat datozen puntuak bilatuz eta bat ez datozenak onartuz (Tierno, 1994).

Elkarrizketarako irekiak izateak besteengan onarpena, ulermena eta akordioa bilatuz pertsonen arteko erlazioak bizitzeko gaitzen gaitu. Elkarrizketa gehien laguntzen duten baldintzak honakoak dira (Tierno, 2004):

- Konfiantza, interes eta bestearekiko errespetu klima bat sortzea.
- Edozein iritzirekiko jarrera irekia eta entzuteko gogoa.
- Portaera egokiak, neurrikoak eta errespetuz betetakoak.
- Entzute arretatsua eta hausnarketa.
- Denbora nahikoa eta baita leku aproposa izatea.

Elkarrizketa egoerek baldintza hauek betetzen badituzte komunikazio eta besteekin topaketa aukera bilakatzen dira.

Prozesu hauek asko errazten dituen elementu bat entzute aktiboa praktikan jartzea da. Era aktibo batean

entzuteak gure solaskideak esan nahi diguna ulertzen saiatzeko gure eskura dauden baliabide guztiak martxan jartzea da, mezuarengatik interesa erakutsiz eta komunikazio lanetan igorlearekin elkarlanean jardunez. Aktiboki entzuten dugu:

- Enpatia erakustean.
- Besteari arreta eskainiz, esaten zaigunean kontzentratuz eta beste edonolako ekintzarekin adia galdu gabe.
- Hitzezkoak ez diren edota hitzezko hizkuntzari atxikitako elementuak erabilita besteari arreta jartzen ari garela adierazten diogunean: begiratzen, buruarekin baieztatzen, makurtu edo hurbiltzen, eta abar.
- Mezua ulertzen dugunean, hitzezkoak ez diren mezuak aintzakotzat hartzen eta hitzezkoekin bateratzen, solaskidearen egoera eta baldintzengatik gure buruari galdetzean.
- Ulertzen ez duguna era ireki batean galdetzen dugunean.
- Presarik ez dugunean, besteak bere burua adierazteko denbora izan dezan utzita.
- Asmakizunetan ez gabiltzanean, epaitzen ez dugunean, aurretik ondorioak ateratzen ez ditugunean.

Gurasoek beraien haurrei familiarteko elkarrizketa adeitsua ahalbidetzen duen jarrera adikor, maitasunez betea eta irekiaren bitartez erakutsi beharko liekete. Familiako erlazioetan zintasunak desadostasunak baretzen ditu eta irekiera eta elkar topaketa

jarrerak sustatzen ditu (Tierno, 1994). Familian askatasunez hitz egiteak haurrengan elkarrizketa adoretu eta sustatzen du.

Adin txikiko haurrek, eta baita nerabe eta gazteek ere, beraien guraso eta hezitzaileek, ahal duten neurrian, beraiek entzun eta beraiekin batera erabakiak har ditzaten eskertu eta balioztatzen dute. Hezkuntza prozesuan guraso eta hezitzaileek, beraien heldutasun eta garapenak ahalbidetzen duten neurrian, haur eta gazteek parte hartze egokia izan dezaten laguntzea komeni da.

Hezkuntza sistematik ere lagun daiteke gazteek beraien erlazionatzeko eta komunikatzeko gaitasunak gara ditzaten. Era harkor batean entzuten eta komunikazio egoera bakoitzean era egokian hitz egiten jakitea alor profesionalean balio handiko gaitasunak dira (Vilà i Santasusana, 2003). Erlazio pertsonal eta gizarte erlazio egokiak ezartzeko beharrezkoak diren jarrera eta gaitasunak dira; eta hainbat ogibide espezifikoren jarduera egokirako ezinbestekoak, batez ere pertsonekin erlazio zuzena dutenetan. Osasun profesional, laguntza eta aholkularitza profesional eta irakasleriaren kasua da, adibidez.

## GIZARTE KOHESIOAN PARTE HARTU ETA LAGUNTZEKO KOMUNIKATU

Gizarte garaikideetan, informazio gizarteak deituak, komunikazio eraginkor bat garatzeko aukera garrantzitsua da. Izan ere, komunikazioa eta parte hartzea bi kontzeptu osagarri bezala ulertzen dira. Teknologiak eta komunikazio digitalak komunikazio unibertsal eta bat-batekoa lortzea ahalbidetzen dute. Sarean komu-

nikazio elementua elementurik erabakigarriena da (Balduzzi, 2010).

Gizarte anitz batean mahaigaineratutako gaien inguruan pentsatzeko modu legitimo desberdinak egongo direla logikoa da; hainbat alorretan adostasunik ez egotea eta, dagoenean ere, iritzi gutxitu dibergenteak entzunak izan daitezen eta, ondo arrazoituta eta azalduta egonez gero, beraiengandik zeozer ikastea, zerbait baliagarria izan baitezakete (Nubiola, 2007). Hiritar demokrata bat besteen iritzia aintzat hartzera irekia badago ere, elkarrizketa bilatuz eta akordio eta partekatutako irtenbideetara iristeko arrazoi eta datuak ulertuz, iritzi guztiak ez dira berdinak. Badaude hainbat posizio, adibidez, ez dituztenak justizia, berdintasuna edota giza eskubideen konplimendua bermatzen.

Parlamentuak eta bestelako egitura parte-hartzaile demokratikoak dira, hain zuzen ere, batzuen eta besteen arrazoiak artatu, era egokian haztatu eta gehiengoarekin adostutako irtenbideak lortzeko sortutako esparru politikoak (Nubiola, 2007). Hiritarrentzat, elkarrekin hitz egitea, entzunak izatea, gizartean parte hartzeko modu garrantzitsu bat da. Gizarte demokratiko batek gai eztabaidagarriei buruz beraien aburuak adieraziko dituzten hiritarren eta gizarte zibilaren ahotsa entzun behar du, elkarrizketa arrazional bat praktikan jartzen saiatuz, gizarte politikoa antolatzeko, elkarbizitza arazoak edo kirol, arte eta kultura gaietan lehentasunak konpontzeko modurik onena bezala.

Erreferentziak

Aguado, J. M. (2014). *Introducción a las teorías de la información y la comunicación*. Murtziako Unibertsitatea.

Balduzzi, E. (2010). La red como escenario de acción intencional. In C. Naval, S. Lara, C. Ugarte y C. Sádaba, *Educar para la comunicación y la cooperación social*, Iruña: COAN, pp. 189-201.

Caballero, V. E. (1993). *Manual de evaluación y entrenamiento de las habilidades sociales*. Madril: Siglo XXI.

Nubiola, J. (2007). *Pensar en libertad*. Iruña: Eunsa.

Ongallo, C. (2007). *Manual de Comunicación*. Madril: Dykinson.

Tierno, B. (1994). *Valores humanos*. Madril: Taller de Editores S. A.

Vilà i Santasusana, M. (2003). *Enseñar a hablar y a escuchar. Cuadernos de Pedagogía*, nº 330, 46-50.

# BEGIKOTASUNA ADEITASUNA



https://goo.gl/6QPvXU

## ZER DA?

Adeitsu hitza gaztelaniaz (cordial) latinezko bihotz hitzetik dator (*cor, cordis*) eta bihotza indartzeko bertutea duen pertsonari dagokio; alegia, bihotzez amultsua den pertsona (Drae). Jarduteko arrazoiak bihotzetik pasatzen dira, horregatik irekitasun eta zintzotasun hitzekin bereizezina da.

Begikotasuna tratuan adeitasuna eta adiskidetasunaren sinonimo bat da. Besteekin erlazio egokiak hasi eta ezartzeko lagungarria zaigun bertutea da.

## NOR DA ADEITSU?

Begikotasuna bihotz indartsu eta eskuzabal batetik dator; pertsona argi, zintzo eta amultsuen jokatzeko ohiko era da. Aristotelesek adeitasuna norbera denetik ematea dela azaldu zuen; eskuzabaltasunak, aldiz, norberak daukanetik ematea da (1994, *Ética a Nicómaco*, IV liburua). Modu natural batean adeitasuna, zintzotasuna eta bizi poza indarrean jartzearen erantzun afektiboa da, besteengan gaindikatzen dena. Beraz, ez dauka itxurak egitearekin zerikusirik (Tierno, 1992) edota kanpo formaltasun huts bat.

- Pertsonak irribarre zintzo batekin onartu eta hartzen ditu.
- Besteengatik arduratzen da, egin, esan eta sentitzen dutenarengatik.
- Tonu atsegin batekin mintzatzen da, era positibo eta bizigarri batean.
- Gertakarien alderdi positiboak nabarmentzen ditu.
- Bere lotsa eta ziurtasun eza gainditzeko esfortzuak egiten ditu, besteekin erlazionatzeko.

- Besteei bizitza pozten saiatzen da.
- Gertuen dauzkanei adorea eta kemena ematen die.
- Norbaitek behar duenean eskukaldi bat ematen dio.
- Besteen arrakastaz pozten da.

Jarrera guzti hauek bihotz zabaltasuna dute izendatzaile komun bezala. Zintzotasuna eta berezkotasuna gure adeitasun keinu eta jarreren sorburu dira. Honela, keinu hauek adiskidetasuna sustatuko dute, baina soilik bihotzean badute iturburu.

## ADEITASUNEAN NOLA HEZI

Familian eta eskolan adeitasuna ezinbestekoa da. Gure jaiotzaren unetik, giro afektibo egoki batean murgiltzeko beharra dugu, eta adeitasun eta samurtasunaren bitartez haurraren eta, gerora, nerabearen behar afektiboak asetzen ditu.

Gurasoak dira eskerrak ematera, partekatzera, eskaintzera, laguntza ematera, amore ematera, etab. erakutsiko dietenak (Aguiló, 1992).

Lehen haurtzarotik adeitasun modelo bizi batzuk behar dira, jokabide begirunetsu, atsegin eta pozgarriak ikasteko. Era berean, adeitasuna da besteekin era positibo batean erlaziona gaitezen gehien laguntzen duen dohaina.

## ADEITASUNA ETA GIZARTE BIZITZA

Gizabanakoak parte hartzen duen ingurune desberdinetan giro adeitsu bat lortzea gizartearen ongizate orokorrean laguntzen duen zerbait da. Funtsean, bizi-

tza osoan zehar familia eta lankideak dira hiritarrak beraien parte sentiarazten dituzten bi gizarte taldeak. Beraz, adeitasuna eskaintzea komenigarria da, pertsona horiekin erlazionatu eta komunikatzeko egokiak diren bideak erabiliz (Isaacs, 2000). Pertsona bakar batek beharbada ez du giro bat eraldatuko; baina besteak kutsa daitezen lehen estimulu bat izan daiteke.

Gure garai honetan ohikoak diren globalizazioa eta kultura-aniztasunak gizarte jokabide eta egite komun batzuk ez daudela pentsaraztea eraman gaitzakete. Dena den, adeitasun eta gizalege kodeei dagokienez ezaugarri komun batzuk daudela egiazta daiteke (Laspalas, 2003). Bizitzaren egoera desberdinetan adeitsuagoak izango bagina, kalean pasabidea erraztean, gidatzerakoan gidatzeko seinaleak errespetatzean, gure lankideak agurtu eta egun on bat izan dezaten opa diegunean, lekua behar duen norbaiti uzten diogunean, pertsonen balioa antzematen dugunean, arretaz entzun eta besteen beharra hautematen dugunean, etab. Kasu bakoitzean adeitasuna indarrean jartzen ari gara. Modu honetan maiztasunez erlazio sozialak kutsatzen dituzten indibidualismoari, hoztasunari, interes ezari, krispazioari, modu txarrei edota berekoikeriari aurre egiteko ahalmena edukiko dugu (Tierno, 1992). Gizarte batean bizitzeak soziabilitatea praktikan jartzera eta besteekin erlazioan modu egokiak zain ditzagun bultzatzen gaitu. Hiritar moduan, gure ekintzen gizarte oihartzunari buruz hausnartzen ikas dezagun eta beste norbanakoekin erlazio egokiak indartzen dituzten jarrera gizarte kodeak praktikan jartzea komenigarria da (Laspalas, 2003).

Erreferentziak


Aguiló, A. (1992). *Educar el carácter*. Madril: Ediciones Palabra.

Aristóteles (1994) (6ª ed.). *Ética a Nicómaco.* María Araujok eta Julian Maríasek egindako itzulpena. Madril: Centro de Estudios Constitucionales.

Espainiako Errege Akademiaren Hiztegia (Drae).

Isaacs, D. (2000). *La educación de las virtudes humanas y su evaluación.* Iruña: Eunsa.

Laspalas, J. (2003). “La cortesía como forma de participación social”. *Anuario Filosófico*, XXXVI/1, 311-343.

Tierno, B. (1992). *Valores humanos.* 2 liburukia. Madril: Taller Editores S. A.

Trigo, T. *Las virtudes humanas.* Hemen eskuragarri: http://www.almudi.org/Recursos/Virtudes/ID/1767/Las-virtudes-humanas (2015ko martxoak 5an kontsultatua).

# ESKUZABALTA-SUNA / LIBERALITATEA



https://goo.gl/YPHea2

## ZER DA?

Eskuzabaltasuna besteei laguntzeko eta, trukean ezer espero gabe, norberaren gauzak emateko joera da (DRAE). “Zentzu honetan ‘liberal’ hitza ere erabil daiteke, pertsona eta ekintza eskuzabal bati aplikatuta” (ARISTÓTELES, 1994, *Ética a Nicómaco*, IV liburua).

Horregatik, eskuzabaltasuna liberalitatearen sinonimo bat da, biak, saririk itxaron gabe, norberak daukana eta estimatzen duena emateko joera bezala ulertuta.

Eskuzabaltasunaren bertutea altruismo, karitate, filantropia, zintzotasuna edo izaera handitasunarekin ere uztar daiteke.

Besteei justizia edo betebeharrarengatik dagokiguna baino gehiago ematean datza. Gugandik ateratzeko ahalmena da eta, maitasun ekintza baten ondorioz, besteen beharrak antzematekoa. Giza ekintzaren dimentsio desberdinetan adierazten da: dimentsio materialean, gure ondasunak partekatzea esan nahi du; dimentsio espiritualean, gure gaitasunak, ezaugarriak eta abilidadeak laguntza ekintza baten bitartez gure inguruan daudenen zerbitzura jartzea. Borondatea ongizatera gerturatzeko erabiltzea da; norberak daukana emateko erabakia libreki hartzea (ISAACS, 2000).

Eskuzabaltasun eta altruismoaren kontrakoa berekoitasuna da, norberaren desira eta beharretan arreta jartzen duen ezaugarria.

## NOR DA ESKUZABAL?

Pertsona eskuzabala:

- Besteen beharrak antzematen ditu eta beraiekiko sentikorra da.

- Daukana partekatzen du, baita bere ezagutza eta esperientziak ere.
- Ordaina itxaron gabe ematen du.
- Bestearen ongizatea lortu nahi du.
- Bere denboraren zati bat besteei laguntzeko edo ekintza solidarioetan pasatzen du.

Eskuzabal izatean, besteengana gerturatzen gaituzten balioak adierazten ditugu, besteak beste, eskuzabaltasuna bere adiera guztietan, bihotz-zabaltasuna, emankortasun, lankidetza, elkarrekikotasuna, enpatia eta justizia.

Eskuzabaltasuna era desberdinetan eman daiteke aditzera. Behartsuenei dirua ematen dietenak daude. Beste batzuk larrialdi egoera batean arropa, medikamentuak edota elikagaiak oparitzen dituzte. Batzuk minbiziaren kontrako, animalien babeserako edo naturaren kontserbaziorako elkarteren bati beraien ondare edo ondasunak ematea erabakitzen dute.

Dena den, eskuzabaltasuna ez da bakarrik diru edo objektuen bitartez adierazten. Gure denborarekin ere eskuzabalak izan gaitezke, adineko pertsona edota gaixoren bati konpainia egitea onartzen dugunean, laguntzeko prest gaudenean edo gure ezagutza edo gaitasunak besteekin dohain partekatzen ditugunean.

Pertsona eskuzabalak daukana partekatzen du ekintza horiengatik inolako ordaina espero izan gabe, zuzen eta justua dela uste duena egiten du. Zentzu honetan, eskuzabaltasuna gure naturaren funtsezko alderdi bat da, garen bezalakoak garelako ematen dugu eta ez soilik behar bati erantzuteko.

## PERTSONA ESKUZABALAK NOLA HEZI

Haurrek eskuzabaltasunaren balioa uler dezaten heztea guraso eta hezitzaileen eginkizun garrantzitsu bat da. Haurrek handitzen doazen heinean ulertzen dute, txikiak direnean partekatzea eta dena beraiena ez dela ulertzea zaila egiten baitzaie; horregatik bertute honetan pixkanaka hezi behar dira. Eskuzabal izatera iristeko aldez aurretik hainbat ohitura eskuratzen joatea beharrezkoa da (Ikusi Corominas, 1994).

Bi urte bete baino lehen ez dauka gauzak bere borondatez partekatzeko gaitasuna. Garai honetan garrantzitsuena bereak diren gauzak eta besteekin partekatzeko gauzak zeintzuk diren argi uztea da.

Ondoren, bi eta lau urte bitartean, nirea-zurea desberdintzen ditu arazorik gabe eta, nahiz eta mesfidantza pixka batekin, haurra berea gauzak partekatzen hasiko da. Momentu horretan, joko batean bezala, ematearen ohitura sustatu behar da, maitasun adierazgarri bat bezala ulertuta. Ez da denbora guztian parteka dadin azpimarratu behar, baina bai maiztasunez egin dezan eta adibide bat eman, besteengan eta norberarengan dakarren poza antzemanez.

Sei edo zazpi urte bete ondoren bertute hau bera garatzeko une oso egokia da. Haurrak, bete beharrez gain, besteen beharrak hautemateko pausoa eman beharko du. Besteen onurarako berea denetik ematearen balioa antzematen joango da. Besteen ongizatea izango da bere ordaina.

Nerabezaroaren hasieran atzerapausoa ohikoa, baina naturala da. Familian eskuzabaltasun ekintzak sustatzea komenigarria izan liteke, nahiz eta ekimena guraso edota anai-arrebengan izan iturburua. Aurrera-

go, hamaika urte bete baino lehen bertute edota joera hori eskuratu bada, hamabost urte bete ondoren, errazagoa izango da norberaren ekimenez berriz ere hori biziaraz dadin. Orduan hasten da ezagutzen ez ditugunekiko elkartasun sentimendu bat sortzen, funtsean norberak daukana partekatzea zuzena den zerbait dela kontsideratzen delako.

Adibidea irakasteko modurik egokiena da. Haur eta nerabeek beraien gurasoek lagundu eta besteentzako gauzak egiten dituztela ikusi behar dute. Parte-hartze, besteekiko zerbitzu eta esfortzu txikiak balioztatzen diren giro batean bizitzeak ekintza eskuzabalak aurrera eramatera bultzatuko ditu.

## ESKUZABALTASUNAREN IRISMENA

Aurrerakuntza teknologiko eta zientifikoak bultzatutako ongizate maila altu bati lotutako gizarte batean bizi gara, erosotasun eta baliabide ugari daudela gure esku. Baina, era berean, badakigu ondasunen banaketa munduan ez dela bidezkoa, eta batzuk ez dutela duintasunez bizitzako beharrezkoa den gutxienekoa ere.

Zentzu honetan, eskuzabaltasuna gizarte bertute[1] bat bezala ulertzen da, justiziarekin oso erlazionatuta baitago eta gizabanakoen arteko erlazio eta elkarbizitzan eragina duelako. Eskuzabaltasun eta liberalitateak norberaren ondasunak bizi den testuinguruan erabiltzeko ahalmena ematen dute.

Pertsona eskuzabalak bere ondasun eta dirua erabiltzen badaki, lehenik, bere eta bere familiaren man-

1. Ikusi Trigo. Hemen eskuragarri: http://www.almudi.org/Recursos/Virtudes/ID/1767/Las-virtudes-humanas

tenurako; baina baita beste hiritarrei, bereziki behar handiena dutenei, emateko. Bere ondasunen erabilera eskuzabalak berari, zein besteei eskuratzen dien ongizateaz jabe da, horregatik atsegin hartzen du eta ematean pozten da, eta bere ondasunak beste hiritarren zerbitzutan erabiltzeko gai da.

Erreferentziak

Aristóteles (1994) (6. ed.). *Ética a Nicómaco.* María Araujok eta Julian Maríasek egindako itzulpena. Madril: Centro de Estudios Constitucionales.

Corominas, F. (1994). *Educar hoy.* Madril: Ediciones Palabra.

Espainiako Errege Akademiaren Hiztegia (Drae).

Isaacs, D. (2000). *La educación de las virtudes humanas y su evaluación.* Iruña: Eunsa.

Trigo, T. *Las virtudes humanas.* Hemen eskuragarri: http://www.almudi.org/Recursos/Virtudes/ID/1767/Las-virtudes-humanas (2015ko martxoak 5an kontsultatua).

# ESKERTASUNA




https://goo.gl/YoOK5c

## ZER DA?

"Eskertasuna jasotako onuraren ordainketarako joera duen gizarte bertutea da. Gizabanako eta taldeek egindako onuraren emaitza den izaera ez juridikoa duen gizarte erlazio sarea eratzen du" (Naval, 2000).

Eskertasuna jarrera bat da, baita jasotako edo jasoko den onura baten estimu eta hautemateearen sentimendu edota emozio bat ere. Hizkuntza espainolaren hiztegiaren aburuz, "egin zaigun edo egin nahi izan zaigun onura edo mesede bat estimatzera behartzen gaituen sentimendua da, eta hori nolabait itzultzeko" (Rae, 2006). Zentzu honetan, justiziaren parte bat bezala hartzen da kontutan, izan ere, norbaitekin zorretan gaudela sentitzean, egin digun onuraren ordainsaria justizian itzuli nahiko genuke. Jasotako mesedeen estimazioa eta ahal dugun neurrian hori ordaintzeko desira sustatzen duen aitorpen eta erreakzio afektiboa da (Tierno, 1998). Dena den, benetako eskertasuna besteak banatze-justiziak eskatzen duena baina harago kontsideratzearen onginahitik sortzen da (Spaemann, 1989).

Emate zein eskertasuna sentimenduen partaide dira, baina baita betebehar, elkartasun eta kontzientzia morala ere (Athié, 2004). Zentzu zorrotz batean, egoerak eta inguratzen gaituen errealitateak interpretatzeko gure era alda dezakeen jarrera bat da. Gure mintzaidearen erantzun edo erreakzioak aldatzeko gaitasuna ere badu eta, beraz, gure gizarte erlazioak eraldatzekoa. Eskertasunarekin batera, garena, daukaguna eta egiten duguna baloratu eta balioesteko gaitasuna dago. Gure aurrean dauden erronkei era era-

ginkor eta arduratsu batean erantzuna emateko beharrezko perspektiba eskaintzen digu.

## NOR DA ESKERDUN?

Zerbaiten onuradun izan denaren borondateak, zuzena bada, hiru gauza egitera mugituko duen eskertasuna biziko du: lehen unean, jasotakoa estimatzera; ondoren, jasotako onurarekiko estimazioa ahoz hauteman eta adieraztera; eta, azkenik, jasotako onurari ekintzen bitartez ordainsaria bilatzera (Spaemann, 1989).

Norbaitek guregatik edozer eginez gero, esker ona sentitzen dugu, esan genezake hori esker pasibo bat dela. Eskertasun aktiboa bizitzaren aurrean daukagun jarrera bat da. Esker onekoa honakoa da:

- Eskerrak ematera ohituta dago, ez gauzak ezin hobeak direnean soilik.
- Gertatzen zaizkion gauza onak antzemateko prest dago.
- Laguntza eskaintzen diotenean, besteen esfortzua balioesten du.
- Besteekin arreta detaileak dauzka.
- Arrakasta pertsonala beste pertsonen laguntzan datzalaz jabe da.
- Bere bizitza era positibo batean eragina duen norbaiten jarrera, jokabidea edo ekintzak baloztatzen ditu.
- Enpatia indarrean jartzen du.
- Baloratzen dituela azaltzen duten keinuak dauzka besteekin.

- Malgua da.
- Jasotzera irekia dago.

## ESKERTASUNEAN NOLA HEZI

Beste bertute guztiek bezala, bere garapenerako haurraren gertuko eredu eta imajinak behar ditu. Esker oneko izaten lehenik familian ikasten da, besteek kide bakoitzarengatik egiten dutena baloratzen eta bakoitzak besteak gustura egon daitezen egin dezaten ekarpena egiten. 2 edo 3 urte bete ondoren, haurrak eskertasuna zer den ulertzen has daitezke, horretarako, guraso eta irakasleen adibidea ezinbestekoa da. Eskerrak ematera irakatsi behar zaie ez gauza materialengatik soilik, baita gestu eta ekintza txikiengatik ere; eta hezitzaileek ere haurren esfortzua balioztatzea ere garrantzitsua da, noizean behin eskerrak emanez.

Hasiera batean sari positiboa aurretikoa da, horregatik errefortzu positiboaren erabilerak ohikoa izan behar du. Kontsolidatu dela esan genezake haurrak, nahiz eta nahi duen guztian atsegina ez eman, bere onuragatik egiten dela ulertzen duenean.

Nerabezaroan, eskertasuna ere funtsezko sentimendu bat da, bizitza gogobetetze eta gizarte integrazioarekin lotuta dagoena (Ayuso, 2012). Garai honetan, zuzenean aditzera ematea zaila egin dakieke, baina zeharkako era batean susta daiteke altruismoa bultzatuz, eskertasuna gizarte talde baten kide izatearen zentzuarekin oso erlazionatuta baitago.

Eskertasuna gure esperientziatik sortzen da, gure bizipenetatik ateratzen den ikaskuntzatik. Hori garatzeko, gure pentsaera aldatzeko gai izan beharko dugu, gertatzen zaiguna ikasteko aukera bat bezala

ulertuz eta ez arazo bat bezala. Praktikan jartzen dugun heinean, geroz eta gauza gehiago aurkituko ditugu eskerrak emateko modukoak direnak.

## ESKERTASUNA ETA GIZARTE BIZITZA

Eskertasuna gurekin elkarrekin bizi diren pertsonekin elkarrekintzan errealitate bihurtzen da, horregatik gizarte erlazioak indartzen laguntzen du. Eskertasuna gure eguneroko ekintzetan eta gizarte erlazioetan bizitzen dugunean, ez dugu bakarrik heldutasun eta aberaste pertsonal maila altuago bat lortzen; giza elkarbizitza baketsuagoa, atsegingarriagoa eta eramangarriagoa egingo baitu ere. Gizabanakoaren eta gizartearen bizitza aberasten duen jarrera bat da. Gainera, beste bertute batzuen sustapena ere posible egiten du: adeitasuna, adiskidetasuna, autoestimazioa, ontasuna, begikotasuna, eskuzabaltasuna, erabilgarritasuna, errukia, pazientzia, elkartasuna, apaltasuna, konfiantza, xumetasuna eta tolerantzia (Tierno, 1998).

Gizartean bizitzeak batzuk eta besteak elkarren lanaz onura ateratzen dugula suposatzen du. Batzuk besteekiko dugun dependentziaz eta eskertasunaren bertutea indarrean jartzeak eskaintzen digunaz jabe izatea.

Eskertasunak gizarte erlazioetan eragina du, esfortzu eskuzabalak egiteko prest dauden pertsonak antzematen lagunduko digun neurrian. Alderdi indartzaile eta motibatzaile bat bezala jarduten da, beste banako batengandik esker ona jasotzen duen pertsona ekintza eskuzabalak egiteko prest egongo baita, egoera desegokiak txikituz (Moyano).

Erreferentziak

Athié, R. (2004). *Gratitud en la universidad, colaboración nocompetencia. Istmo liderazgo con valores, 273*. http://istmo.mx/2004/07/gratitud_en_la_universidad_colaboracion_no_competencia/

Ayuso, M. (2012). "Cómo trabajar la gratitud para ser más felices". *El Confidencial* aldizkarian 2012ko abuztuak 23an argitaratutako artikulua. http://www.elconfidencial.com/alma-corazon-vida/2012/08/23/como-trabajar-la-gratitud-para-ser-mas-felices-104114/

Moyano, N. "Gratitud en la psicología positiva". *Revista Psicodebate: Psicología, Cultura y Sociedad, 10*, 103-118. http://www.palermo.edu/cienciassociales/publicaciones/pdf/psico10/10Psico_06.pdf

Naval, C. (2000). *Educar ciudadanos. La polémica liberal-comunitarista en educación.* Iruña: Eunsa.

Espainiako Errege Akademia eta Espainiar Hizkuntzaren Akademien Elkartea (2006). *Diccionario esencial de la lengua española.* Madril: Espasa.

Spaemann, R. (1989). *Felicidad y benevolencia.* Madril: Rialp.

Tierno, B. (1998). *Valores humanos.* Madril: Taller de Editores.

# JUSTIZIA



https://goo.gl/Z5buk3

## ZER DA?

Justiziaren bertutea besteari –pertsona zein talde– dagokiona emateko borondate egonkor eta tinkoa bezala defini daiteke (Cic, 1807). Justizia orokorrari buruz ari gara, komunitate, talde edota gizarteari orokorrean aplikatzen zaionean, eta helburutzat ongizate komuna duena; justizia partikularra, ordea, gizartearen kide bakoitzari dagokiona da.

Esan daiteke justizia partikularra justizia orokorraren adierazpen bat dela, azken honek ongizate komunera bideratu eta gidatzen baitu.

Justiziak gizarte izatea du, ondorengoarengatik:

- Bakoitzaren eskubideak errespetatzera prestatzen gaitu.
- Giza erlazioetan armonia ezartzen du.
- Pertsona eta ongizate komunarekiko zuzentasuna sustatzen du.

## NOR DA JUSTUA? JUSTIZIA PERTSONALA

"Pertsona zuzen bat, printzipioz, bakoitzari dagokiona ematen diona da, bere betebeharren betetzearen eta bere eskubideen arabera. Justiziaren balioa preziatzen duenak justiziaren ohitura landuko du, pertsonei dagokiena baino gutxiago ez emateko joera" (Cortina et al., 1998; Isaacs, 1994).

Pertsona zuzenak bere eskubide eta betebehar propioak zeintzuk diren ulertuko du eta baita besteenak ere, beraien kide egoeraren arabera familian bertan, guraso, lankide, hiritar, etabarrekin.

Justizia beste pertsona batzuekiko besterik ez da aurrera eramaten; hori dela medio, zor duena antzematea norbanakoaren gaitasunean dago, hau da, besteekiko konpromiso eta betebeharren arabera.

Txikienak zailtasunez jardungo dira jakinaren gainean era zuzen batean, baina pixkanaka denak era berean tratatuak izatearen beharraz ohartzen dira eta zuzenena berdintasunezko tratu bat ez dela konturatzen dira, baizik eta zuzentasun tratu bat, pertsona bakoitzaren erantzukizun eta egoerak kontutan hartzen dituena (Isaacs, 1994).

Honako hau da zuzena:

- Behin ezagututa, jokoaren arauak errespetatzen ditu.
- Arauek orokorrean berdinen artean elkarlana ahalbidetzen dutela ulertzen du.
- Adostasuneko akordio eta irtenbideak eratzeko gai da eta gero betetzeko.
- Sekretu bat gordetzen badaki.
- Egia esaten du.
- Besteen iritziak errespetatzen ditu.
- Besteei buruz errespetuz hitz egiten du, marmar egin eta kalumniatu gabe.
- Besteen jabetza errespetatzen du.
- Egoki dena ordaintzen du.
- Utzi zaiona jaso zuen egoera berdinean itzultzen du.
- Besteen behar eta eskubideak errespetatzen ditu.
- Daukan denbora ondo erabiltzen du eta egoki dena egiten du.
- Agintea dutenen lege eta aginduak betetzen ditu.
- Bidegabekeriaren bat egin badu, behar bezala konpontzeko edo neurri konpentsatzaileak hartzeko gai da. Eta beste batzuk izan badira, barkatzeko eta mendeku ekintzari uko egiteko gai da.

## GIZARTE JUSTIZIA

Justiziaren bertutearen garapena gizarte bateko kide guztiengan emango balitz, ia erabateko ongizatea egongo litzateke, beraien arteko elkarlana posible izango baitzen gizarte ordena zuzen bat ezartzeko. Pertsona zuzen bat hiritar bezala era egokian jardungo da.

Bestalde, gizarteak ere hiritarrekiko justua izan behar du, gizarte batean antolatzeko eta gizarte egitura eman batzuen pean jartzeko, pertsonek egitura horietan bizitza, pertsonal zein sozial, duin bat izateko gutxieneko baldintzak aurkitzeko desira bilatzen baitute. Erakunde politiko zein legeak elkarbizitza zuzen marko bat ezartzeko daude.

1948an Nazio Batuek aldarrikatutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, pertsonek beraien giza duintasunaren arabera bizi daitezen nazio guztiek babestu beharreko justizia minimo batzuk dauzka. Iritzi, elkarte, bilera, lekualdatze, komunitate politiko propioan hartzen diren erabakietan parte-hartze, duintasunez bizitzeko behar ekonomiko, gizarte eta kulturalak asetze, hala nola lanerako, atsedenerako, etabarrerako eskubidea sustatzea edozein gizarteren justizia betebehar bat da.

Erabat garatzeko denok dugu inguruan dauzkagun pertsonen beharra eta denok dauzkagu beraiekiko betebeharrak. Gure askatasun eta eskubideak besteen askatasun eta eskubideen errekonozimendu eta errespetuarengatik mugatuak daude.

Giza Eskubideak gizakiak elkarri justizian zor diogunaren murriztutako dimentsio bat dira. Benetan, zuzen izateak, bakoitzari dagokiona ematearen ohitu-

ra, bertutea, lantzea esan nahi du. Honek besteekiko gure erlazioan etengabe kontutan har dezagun eskatzen du.

## FORMAKUNTZA MORALA

Hezkuntza morala teorian zein praktika pedagogikoan lehentasunezko arreta foku bat da. Intelektualismo eta arrazionalismo pedagogikoaren arteko pendulu oszilazio etengabe bat dago, formazio intelektuala eta hezkuntza moralerantz arreta erakartzen duena.

Antropologiaren ikuspuntutik, hezkuntza moral eta intelektuala bereizezinak dira; kontzeptualki desberdin badaitezke, ezin dira giza formakuntzan operatiboki banatu, arrazoiaren burututako hazkundea laguntzen duten dimentsio edo zehaztapenak baitira biak. Irakaskuntza adimenera edo ezagutzazko potentziara bideratuta egonez gero, formakuntza intelektualari buruz hitz egiten da; erreferentzia borondatea denean, formakuntza moralari buruz hitz egiten da.

Justiziaren bertuteak helburuarekin erlazioan desira arrazional zuzen bat osatzen du. Neurritasunetik justiziara osotasun gradazio argi bat dago: neurritasuna jarduten den banakoari eta barne ordena eta armoniari baderitzo, justiziak zuzenean eta segituan besteei begiratzen die, intimitate pertsonalaren irekieran egokia dena egiteko joera izanez, bai norberarekiko baita besteekiko ere. Horregatik nerabezaroaren –12 eta 16 urte bitartean– eta bereziki gaztaroaren –17 urtetik aurrera– bertute aproposa da, garai horretan potentzia arrazionala nahikoa aktiboa baita eta irekiera pertsonala berez ematen delako.

Nerabezaroa aurrera doan heinean, justizia zentzua heltzen doa. Hasiera batean erreferentzia subjektiboa nagusi izango da, besteak norberaren erreflexu eta kontraste soil bat dira eta, eta justizia besteengan hautematen diren eskubideen aldarrikapena bezala ulertu eta bizitzen da. Pixkanaka, irekiera dimentsioa finkatu eta indartzen den heinean, "bestea" zuzen denaren erreferentzia bihurtzen da eta justiziaren funtsezko printzipioaren arabera borondatearen nahia eratzen da: bakoitzari berea dena ematea. Neurritsu ez dena edo bakoitzari dagokiona ematearen neke eta esfortzuak jasateko gai ez dena ezingo da zuzentasunez jardun.

Zentzu honetan esan daiteke neurritasunak eta indarrak justiziaren garapenerako xedapen eta ezinbesteko izaera dutela; baina horregatik ere ez dira nahikoak. Erabateko formakuntza morala zuzenki obratzen lortzen da; hezkuntzak bere egitearekin batera doan doktrina azaltzen du, adibidea dena, eta gainera santzioak –sariak eta zigorrak– bezalako beste zeharkako baliabideak ere erabil daitezke; baina justiziaren garapena ez da posible izango elkarbizitzan esparruan ekintza egokiak burutu gabe.

Justiziak, desira arrazionala den borondate bertute moduan, onura maiz nahi izatea eta asmoa ekintzaren bitartez konpon dadin eskatzen du; giza elkarbizitza formakuntza eremu propio izatean amaitzen dena: ezin da zuzena izan besteekin etengabeko eta borondate oneko erlazioan. Honela, hezkuntza komunitatea antolatzen duen araudia, adibidez, ondo erabiliz –familian naiz eskolan izan– gero formakuntza moralerako baliabide oso baliagarria izan

daiteke; hau da, behartzeko agintearen adierazpen objektibo bezala besterik ez adierazten, besteen eskubideak errespetatu eta sendotzeko eta parekotasunean banatua izan daitezen itxaroteko funtsezko modu bezala aditzera ematen baizik: bakoitzari dagokiona emateko funtsezko printzipioa elkarrekin indarrean jartzeko.

Gauzak zuzentasunez egitean, besteari dagokion onura indarrean jartzeaz gain, bere ezagutzan aurreratzen da ere. Bestea pertsona bezala antzematea da; alegia, bestea berez ez dela hori, norbait baizik onartzea: “bestea” generikoa ez zaiola inori komeni, inor ez delako zer xume bat, nor bat baizik. Pertsonaren buruturako hazkundea justizia bere era gorenean indarrean jartzera eramango du, ekitatea, legea iristen ez den tokietan legearen asmoa mantentzen duena; lege oro unibertsala baita eta modu unibertsal batean zuzenki landu ezin diren gauzak baitaude. Bidezko denak ez du legearen betetze zorrotz bat nahi beste edozein gogoetaren gainetik eta, batez ere, subjektuen izaera pertsonalaren gainetik. Haatik, justizia mota hau aukeratu eta praktikan jarri eta zentzu oker batean justizia zorrotz bat eskatzen ez duena, nahiz eta legea bere alde dagoen, amore ematen dakiena baizik, da bidezkoa.

## Erreferentziak

Altarejos, F. eta Naval, C. (2011, 3ª ed.). *Filosofía de la educación.* Iruña: Eunsa.

Colom, E. (2001). *Curso de doctrina social de la Iglesia.* Madril: Palabra.

Cortina A., Escamez, J., García, R., Llopis, J. A. eta

Siurana J. C. (1998). *Educar en la justicia.* Valencia: Generalitat Valenciana, Consellería de Cultura, Educació i Ciència.

*Eliza Katolikoaren Kristau-jakinbidea*

Isaacs, D. (1994). *La educación de las virtudes humanas.* Iruña: Eunsa.

# PARTE-HARTZEA



https://goo.gl/5j5DNv

## ZER DA?

Parte-hartzea zerbaitetan parte hartu edo edukitzea da (RAE, 2006); komunitate edo talde baten parte sentitzea eta erabakietan esku hartzea. Hiritar bakoitza protagonista da eta mugitzen den gizarte eremuetan paper bat jokatzen du.

Hiritar parte-hartzeak politika publikoetan zuzenean edo zeharka eta sistema politiko eta administratiboaren maila desberdinetako erabakietan eragiteko helburuarekin hiritarrek borondatez –maila indibidualean edo kolektibo eta elkarteen bitartez– egindako ekintza guztiak barnean dauzka.

Gizarte parte hartzearen funtsezko mamiak, ordea, zuzenbideko edo politika markoa gainditzen ditu eta giza bizitzaren beste esparru askotan eragina du, hala nola, familia, eskola, lana, gizarte zerbitzuak, hiritar elkarteak, iritzi publikoa, informazio eta komunikazio teknologiak, etab. (NAVAL, 2002).

Gizarte eremuan parte hartzea garrantzitsua da, demokraziak berreskuratu eta indartzeko bitartekari batean bihur baitaiteke. Hiritartasun, eskubide eta betebeharren eskuratze, gizarte garapen, gizarte zerbitzuen kalitate, arazoei irtenbidea bilatu, autonomia, etabarrekin erlazionatuta dago. Azken batez, parte-hartzeak gizarte kohesioa sortzen du.

## NOR DA PARTE-HARTZAILE?

Parte-hartzeak eskatzen du hausnarketa kritikoa, gauzak aldatu eta hobetzeko gogoa, bestea entzun eta bere pentsamendua kontutan hartzekoa, errespetua eskatzen du.

Parte-hartzailea honakoa da:

- Gizarte komunitate baten parte sentitzen da.
- Elkarrizketa eta adostasuna bultzatzen ditu.
- Erabakiak hartzeko prozesuen barne dago.
- Kontsultetan parte hartzen du.
- Eztabaida publikoetan nahasten da.
- Prozesu bat sustatu, hobetu, zuzendu edota horri uko egiteko gai da.
- Besteekin lankidetzan eraginkorra da.
- Guztien esperientzia eta gaitasunaz baliatuko da.
- Irtenbideak eskaintzen ditu.
- Gizarte bizitza dinamizatzeko ekimenak sustatzen ditu.
- Behar zehatzak ebazten ditu.
- Bere arazoentzako erantzun zehatzak eskatzen ditu.
- Norberaren eta besteen bizitza baldintzak hobetzeko erantzukizuna sentitzen du.
- Solidarioa da eta hiritar kanpainetan parte hartzen du.

Azken finean, gizarte gaietan nahasten dena.

## PERTSONA PARTE-HARTZAILEAK NOLA HEZI

Parte-hartzeko motibazioak ikaskuntza eta entrenamendua beharrezkoak ditu. Parte-hartzeko jarduera baino lehen, ideiak, baloreak eta sentimenduak partekatzearena dator, eremu pertsonalean parte-hartzea bultzatzen duena (Bernal, 2002). Parte hartzen, lehenik, familian ikasten da. Ondoren, eskola giroan, horretarako bideak ezarriz; edozein hezkuntza erakunderen berezko elementua dela kontutan har-

tuta. Hezkuntza erlazioan era natural batean ematen da parte-hartzea komunikazio formapean (NAVAL ETA ALTAREJOS, 2000).

Parte-hartzea ez da helburu bat bere baitan, bere gizarte dimentsioan hezkuntza jarduerarako bitartekari ezin hobea baizik. Ez da teknika bat, kultura bat baizik, gizartetik eskolara parte-hartze tekniken translazioak ez duelako bere baitan parte-hartze kultura bat sustatzen.

Parte-hartzera parte-hartzen ikasten da, baina formakuntza ere beharrezkoa da; eta beti askatasun pertsonalaren arriskua dago. Hezkuntza zentroetatik sustatzeko, konfiantza antolakuntza giro bat ezarri behar da, komunikazio pertsonal egoki bat eta izaera kooperatiboa (NAVAL ETA ALTAREJOS, 2000).

Pertsona batek parte har dezan, horretarako ezarritako bideak erabili nahi eta jakin behar izateko xede eta ohitura beharrezkoak edukitzea ezinbestekoa da. Parte-hartzea konfiantzaren ikuspuntutik bultzatzen da, helburu komunen existentzia edukita. Norbait besteekin batera burutuko den proiektu batekin identifikatzen denean parte hartzen da (ALTAREJOS ETA NAVAL, 2005).

Parte-hartzea ez da bakarrik gobernuei dagokien gai bat, gizarte zibilari ere baizik. Botere publikoek hiritarren parte hartzeko eskubidea bermatu behar dute, baina hiritarrek ere parte-hartzeko eskubideari atxikita dagoen erantzukizuna ere onartu behar dute. Gai publiko eta sozialetan nahasteak erantzukizun partekatua eta komunean ekintzak dakartza berarekin.

Jarduera parte-hartzaileak hiritar hobeak izan gaitezen laguntzen digu.

## PARTE-HARTZEA ETA GIZARTE BIZITZA

Demokrazia hiritarrei boterea indarrean jartzearen parte-hartze maila bat eskaintzen dien prozedurak dauzkan sistema politiko bat da. Argi dago prozedura horien existentzia beharrezko baldintza bat dela, baina ez nahikoa, parte-hartzea eman dadin.

Parte-hartzea demokraziaren oinarrizko pilare bat da, neurri batean, botere demokratikoetan hiritarren parte-hartzearekin eratzen baita (Naval eta Altarejos, 2000). Erabakiak hartu eta erabaki horiek onartu behar dituztenen arteko tartea gainditzeko baliabide bat da. Aurrera eraman ahal izateko, beharrezkoak dira: 1) hiritarrentzako gardenak diren eta funtzionamendu egokia duten erakundeak; 2) gizarte zibil aktibo bat; eta 3) benetako parte-hartzeko mekanismoak egotea.

Erabakiak hartzerakoan parte-hartzeko eskubidea, hauteskunde prozesuez gain, Konstituzioko 23. artikuluan jasotzen da: “Hiritarrek gai publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, zuzenean edota sufragio unibertsalaren bitartez aldizkako hauteskundeetan askatasunez aukeratutako ordezkarien bitartez”.

Gizarteak gobernua komunitate, sektore eta erakunde desberdinak elkarrekin erlazioan jartzen dituen sare bat izango balitz bezala funtzionatzen du. Proposamenen ezarpenean eta erabakiak hartzeko orduan hiritarren sostengua eta lankidetza izatea ezinbestekoa da.

Honek, lehenik komunitate eta udalerri mailan, hiritarrek esku-hartu dezaten eta jardun daitezen indartzea eskatzen du. Demokratikoki aukeratutako politikoek proiektu publikoen erabakien erantzukizuna dute; baina gizarte elkarteek, familiek, hiritarrek,

azken finean, ongizate komuna lortzeko laguntzeko eskubide eta betebeharra dute.

Gizartearen sendotasuna hiritar ekintzaren indarraren bitartez neurtzen da, era indibidual zein kolektiboan. Gai publikoetan erabakiak hartzeko gaitasun eta erantzukizuna duten hiritarrekin batera demokrazia sendotzea da helburua.

Informazioaren gizartean, teknologiek hiritarren kontsulta eta parte-hartzea errazten dutela argi dago.

## Erreferentziak


Altarejos, F. eta Naval, C. (2005). "La educación cívica en una sociedad globalizada". *Revista Galega do Ensino, 46*, 841-862.

Bernal, A. (2002). "Voluntariado: participación social educadora". In C. Naval (Ed.), *Participar en la sociedad civil*, pp. 81-109. Madril: Espasa.

Espainiako Konstituzioa (BOE zbk. 311, 1978ko azaroak 29koa).

Naval, C. (Ed.) (2002). *Participar en la sociedad civil.* Iruña: Eunsa.

Naval, C. eta Altarejos, F. (2000). "Educar para la participación". In J. L. García Garrido et al., *La sociedad educadora* (pp. 226-229). Madril: Fundación Independiente.

Espainiako Errege Akademia eta Espainiar Hizkuntzaren Akademien Elkartea (2006). Diccionario esencial de la lengua española. Madril: Espasa.

# ERRESPETUA



https://goo.gl/UStG3O

## ZER DA?

Errespetua, batez ere, era desberdinetan bizi dugun barne jarrera eta sentimendu bat bezala ulertzen da.

Batzuetan, gure barrutik norberaren burua errespetatzera presatuak sentitzen gara, ekintzaren bat burutzean giza duintasuna kontutan izatera. Besteen duintasuna ez kaltetzen laguntzen diguten gauza serioen aurrean beste errespetu mota bat ere nabaritzen dugu. Hau da Errege Akademiaren Hiztegiak esaten duen “besteren batekiko mirespen, obeditzea”, edo “begiramen, begirune, urguritasuna”.

Dena den, ‘gizalegearekin’ zerikusi handiagoa duen beste errespetu forma bat badago, irain edo enbarazua eman ez dadin laguntzen diguten gizarte ohituretara lotura estuagoa eduki dezagun garamatzana. Gainera, errespetu sentimendua, batzuetan, ez jardutera edo auziren bat ez egitera eramaten gaituena da eta besteen askatasuna errespetatzera. Beste errespetu forma batzuetan ere pentsa daiteke, legeari, arauei, nagusiei edo iritzi publikoari men egitearekin identifi ka daitekeena. Azkenik, errespetua ‘beldurrarekin’ ere nahastu daiteke, zerbait egin dezagun oztopatzen duena, ondorioei beldurrarengatik edo inolako hausnarketa tartean egon gabe.

Errespetuari buruz azaldu ditugun sentimendu desberdinak aditzera ematen diren akto desberdinetan islatzen dira. Hortaz, ‘kanpo’ errespetu bati buruz hitz egin dezakegu, gizarte elkarbizitzak eragiten diona. Errespetuaren pertzepzio eta manifestazioek kultura eta gizartearen eragina dute, sozialki eta kulturalki mediatuak daude eta, gainera, zuhurtziaz, egoera

bakoitzean zer egin behar den erabakitzen duten subjektuei esker forma zehatza lortzen dute.

## NOR DA ERRESPETUZKO?

Errespetu jarrera zerbaiten jabetzari eta onura propiorako zerbaiten erabilerari uko egitean datza, eta distantziak mantenduz, atzeraka botata adierazten da, errespetua merezi duenak gora egin dezan tarte bat sortzen delarik eta hobe ikus dezagun ahalbidetzen duelarik.

Errespetuzkoa existitzen dena, errealitatea, norberaren identitatea, inguruko pertsonen, bizi den garaiaren onarpen gaitasuna indarrean jartzen duena da. Dena azkartasunez onartzen jakitean datza: ez bakarrik daukagun indarra, baita ahultasunak ere; ez bakarrik aukerak, baita mugak ere.

Egiazkotasuna, era berean, errespetuaren beste sustraietako bat da, hitz, ekintza eta konfiantza keinu duinetan islatzen dena; egiazkotasun operatiboa, hau da, besteekin erlazio estuan. Honela ikusita, egiazkotasuna giza soziabilitatearen, gizarte erlazioen oinarri bezala aurkezten da; gainera, argi dago gezurrak gizakien arteko batasuna suntsitzen duela, distantziak sortuz. Egiazkotasunak, ordea, pertsonen arteko erlazioei (konfiantza, estimua) tinkotasuna eta sendotasuna ematen die eta, hortaz identitate pertsonalaren eraketarako funtsezkoa da.

Era berean, pazientziak errespetuarekin harremana du, fideltasuna erlazionatuak gaudenekin pazientzia izatean baitatza gehien bat: izate heldu eta arduratsua gizakia den moduan, dena onartzen, ikustean hasten da; hortik sortzen da gauzak aldatu eta eraldatzeko

indarra. Horrela pertsonekin justizia egiten da, bestea (bestearen) ikuspegitik batuz eta ondorioz jarduten.

Gizalegeak konfiantza eta giza erlazioak errazten ditu ere bai, pertsonaren estimazioan ondorioztatzen bada behintzat eta ez bada artifizio zaharkitu, huts edo desnaturalizatu soil bat. Gizalegeak bestea nahigabetu dezakeena ezabatu eta ekiditera eramaten gaitu, deserosoa edo zakarra denaz ihes egitera, oztopoak arintzera. Gizalegearekin gazteak heldua ohoratzen du, indartsuak ahula, batzuk besteak, ohorea gizon eta emakume bakoitza izate soilarengatik daukan duintasunaren ondorio delako. Gizalegeak, azken finean, denbora eskatzen du, baina beharrezkoa da batzuetan bide zuzena ez delako modurik egoki edo leunena, besteengan pentsatu behar dugu ordea, nolakoak diren eta nola erreakzionatzen duten beraiekin erlazionatzeko modurik onena aukeratzeko.

Isiltasuna eta harrera, azken finean, errespetua eman dadin beste bi ezinbesteko elementu dira. Elkarrizketa harrera badago besterik ezin da eman; elkarri entzuteko arreta badago: elkarbizitzen dutenen intimitatea prest badago, adikor, ez bakarrik entzuteko, ondorioz jokatzeko ere baizik. Edonola, errespetuaz hitz egitea azkenik, eta erabakigarria da, benetako elkarrizketa prozesu bat da, intersubjektibitate komunikazio jator bat eta parte-hartze natural eta bizi bat (Altarejos eta Naval, 2000; eta Naval, 1995).

Gure arreta txikienengan jartzen badugu, errespetuaren garapenerako prestakuntzarako hainbat arau betetzean, honela laburbil daiteke: (Ikusi Isaacs, 2008, http://encuentra.com/valores_explicados/educacion_del_respeto_14282/ ):

1. Denak desberdinak garela erakutsi eta, beraz, modu desberdin batean tratatu behar ditugula.

2. Bakoitza denarengatik onartzen erakutsi, 'sailkatu' gabe. Ondorioz:

- Beraien ondareez jabetzen, kontsiderazio gutxirekin tratatzen, etab. besteei atsekabea ez eragiteko portatzen erakutsi.
- Besteak ez gaitzesten erakutsi.
- Besteen alde era positibo batean jarduten erakutsi.
- Besteengan zerbait positiboa bilatzen erakutsi.
- Besteek beraientzat egindako esfortzuak eskertzen erakutsi.

Nerabezaroa errespetua lantzeko garai bereziki garrantzitsua bezala aurkezten da, beste gizarte bertuteekin gertatzen den bezala. Jadanik irekitako edota irekitzeko bidean dagoen norberaren intimitatearekin, besteak eta norbera errespetatzeak zer esan nahi duen ezagutzen du.

Nerabeak besteengatik errespetatua izan nahi du eta errespeturik ez dagoela deritzonean ez du onartzen. Dena den, ez du oso argi berak besteekiko errespetu faltaren bat duenean. Lagunen bat hitzorduren batera ez bada joaten haserretu egiten da, baina ez zaio horrenbeste axola bera bada hitzordura ez doana. Lagunen bat berari buruz gaizki esaka badabil ez du atsegin, baina batzuetan berak hitz egiten du gaizki besteei buruz, etab.

Hobeto ezagutzen diren pertsonen artean –anai-arrebak, lagun minak, etab.– errespetu handia-

goa egon beharko litzatekeela dirudi, erlazio horietan gehiago findu beharko baita etengabeko elkarbizitza bat lortzeko. Baina hau ez da beti lortzen erraza, eta prestakuntza eta esfortzua beharrezkoak dira.

Gurasoek paper garrantzitsu bat jokatzen dute hemen, ez beharrezko elkarrekiko errespetu faltak susta ditzaketen egoerak sor ez daitezen lan egiten.

Nerabeak beste arazo bat sarritan errespetua “kalterik ez egiten saiatzen, egiten uztea” bezala ulertzen du, eta honela ez du era egoki batean besteei laguntzeko bere betebeharra onartuko. Besteek hobetzeko erabateko aukera badute, errespetuak osotasun pertsonal handiagoa lor dezaten laguntzera eramango gaitu. Orain bai, lagundu ahal izateko bestea ezagutu behar dugu, nor den eta bere egoeraren alderdi asko. Besteari oinarririk gabeko iradokizun bat eginez gero errespetu falta bat izango litzateke, sen on falta bat izateaz gain. Baina pertsona ezagutuz gero, elkarren arteko interes bat egon dadin kontaktu nahikoa badago, errespetua norbaitekiko ekintza positibo bat izango da.

Errespetua, zentzu honetan, beste pertsonaren kondizio eta egoeraren ezagutzan oinarritzen da. Norbaitek bestea nahikoa ondo ezagutzen badu, posible da, neurri handi batean, norberaren ekintzaren ondorioak aldez aurretik ezagutzea. Hori dela eta, besteekiko errespetuagatik ere, jardun baino lehen balizko ondorioak kontutan hartzea garrantzitsua da.

Errespetuak, azkenik, zentzua edukiko du errealitatean oinarrituta badago, benetakoa denena. Norbait oker dabilela ohartaraztea ez da errespetu falta bat, aditzera ematen den moduaren arabera izan liteke.

Izan ere, egiarekiko errespetuak egoera azaltzera eramango gaitu. Errespetuak, zuhurtasunagatik, norbait ez badago pentsatzen duenaren egiazkotasunaz ziur, iritzirik ez ematea edo ezer ez egitea suposatzen du, inori kalte ez egiten edota etekinik atera ez dezan ekiditen.

## GOGOETA FINALAK

Gaur inoiz baino gehiago hezkuntzaren bisio berri bat beharrezkoa dela dirudi, gizakiari arreta egoki modu bezala ulertuta. Egia da mugitzen garen testuinguru merkantilistak irakasle eta ikasleen arteko erlazio mota berezi bat nabarmentzen duela, eta hauek atsegin eman behar zaion bezero batean bihurtzeko arriskua dago, hezi, zaindu eta lagundu behar zaien gizakiak izan ordez. Hau da egoera, postmodernitatean ohikoak diren planteamendu berriak daude, ordea, sentikortasun berri baterantz irekiera bat ikuskatzen denetan. Miresmen jarrera menperatze beste batengatik ordezkatzen duen pentsaera aldaketa bat gertatzen ari dela dirudi; zaintzaren nagusitasunaren alde egiten du aldaketa gaitasunaren gainetik. Geroz eta argiago, teknika etikoki anbiguoa dela antzematen da, eta anbiguotasun hau kaltegarria izatera irits daiteke, teknologia eta garapena giza testuinguru zabal eta osatuago batean jartzea lortzen ez badugu.

Eskaera honek egun lanbide guztietan du eragina baina modu berezi batean hezkuntzarekin lotura dutenetan, eta noski baita osasunarekin, aldaketa hau miatzeko bi esparru pribilegiatu dira. Zaintza funtsezko helburua den jarduera batzuei buruz ari gara, hain zuzen.

## Erreferentziak

Altarejos, F. eta Naval, C. (2000). *Filosofía de la Educación*. Iruña: Eunsa.

Dillon, R. (1992). *Respect and Care: Toward Moral Integration. Canadian Journal of philosophy, 22* (1), 105-132.

Dillon, R. (1996). *Dignity, Character and Self-Respect.* New York: Routledge.

Gilligan, C. (1982). *In a different voice: Psychological theory and women´s development.* Cambridge, MA: Harvard University Press.

Guardini, R. (1997). *Virtù.* Brescia: Morcelliana.

Isaacs, D. (1996). *La educación en las virtudes humanas*. Iruña: Eunsa.

Isaacs, D. (2008) *Educación del respeto.* In: http://encuentra.com/valores_explicados/educacion_del_respeto_14282/ (Kontsultatua 2012ko urriak 20an).

Llano, A. (1988). *La nueva sensibilidad.* Madril: Espasa Calpe.

Naval, C. (1995). *Enseñanza y comunicación.* Iruña: Eunsa.

Naval, C. (2001). *Confiar, cuna de la sociabilidad humana.* Costa Rica: Promesa.

Noddings, N. (1984). *Caring: a feminine approach to ethics and moral education.* Berkeley: University of California Press.

# ERANTZUKIZUNA




https://goo.gl/dA6iUl

## ZER DA?

Erantzukizunak erantzutea esan nahi du. Egindako zerbaiten edo askatasunez hartutako erabaki baten ondorioak antzeman eta onartzeko gaitasuna da (Garrido, 2009). Erantzule izateak gure helburuak lortzeko ekintzarik egokienak zeintzuk diren erabakitzea suposatzen du; alegia, erabaki egokiak hartu eta beraiei erantzuna eman.

## NOR DA ERANTZULE?

Pertsona erantzule batek:

- Bere bizitzan nahi dituen baloreak onartzen ditu, hau da, bera dena onartzen du.
- Inguruko egoera edo pertsonei ardura guztia kenduz, egindakoaren justifikaziorik bilatu gabe hartutako erabaki pertsonalen ondorioak onartuko ditu.
- Ongia hautatzeko gai da eta ezetz esatekoa.
- Hartutako erabakien kontra doazen kanpo eta barne presioak jasaten ditu.
- Bere akatsak hauteman eta onartzen ditu.
- Beregan agintea duten pertsonen aurrean kontu ematen du.
- Bere ideiak besteei adierazteko eta besteenak interpretatzeko era eta argitasunaren emaitzak onartzen ditu.
- Lehentasunak ezarriz, bere denbora nola antolatu eta hierarkizatu erabakitzen du.
- Bere eskubideak indarrean jartzen ditu. Bere eginkizun, betebehar eta eginbeharrak onartzen ditu.

- Proaktiboa da, parte-hartzen du, aurrea hartzen du eta proiektuekin konprometitzen da.
- Familian, lan esparruan edota gizartean, ongizate komunarekin lan egiten du.

Hitz batez, pertsona erantzule batek bere bizitzako agintea hartzen du, modu egoki batean antolatzen du, hartuko duen bidea aukeratzen du eta horren berri ematen du.

## ERANTZUKIZUNA ETA ASKATASUN PERTSONALA

